



Oilasko biltzaileak baserriz baserri dantzan aritu ohi dira Kuadrillen egunean. **OLATZ BALDA**

Asteburu bakarrean, baina betiko indarrarekin datoz Añorgako karmenak

Urteroko ilusioarekin eta jarduerekin heldu dira Añorgako Karmengo jaiak, baina bi asteburutan egiten zutena bakarrean egingo dute aurten: zikiroa, oilasko biltzaileak, Mozorro Festa, eta abar. Berritasun batzuk ere prestatu dituzte.

Beñat Parra Rodriguez

Dena batera izango da aurten; añorgatarrentzako gogorra, baina hobeto. Bakoitzak bere indarrak kudeatu beharko ditu», dio Añorgako jai batzordeko kide Jon Altunak aurtengo Karmengo jaiari buruz. Izan ere, horixe da berritasun nagusia: «Jaiak asteburu bakarrera mugatzea erabaki dugu, esperimentu gisa. Senti-pena genuen ia uztaila osoa pasatzen genuela jaietan».

Horrela, etzi Jubilatuen eguna izango bada ere, ostegunean hasiko dira jaiak bere horretan, aurtengo beste berritasun nagusiarekin: kuadrillen arteko herri kirol desafioa.

Betikoak ez du huts egingo

Zikiroaren egun arrakastatsua, beraz, ostiralean izango da, mozorro festarekin: «Añorgarekin lotura duen edonork

egutegian markatuta duen eguna da», nabarmendu du Altunak. Parrandak luze jo ohi du añorgatarrentzat, baina «berpizten» dira larunbateko kontzertuetarako: aurten, Ezpalak, Tapia eta Leturia Band eta Zurrumbilo Fest.

Igandean, bertso afaria daukate, Altunaren hitzetan, «autokontrol ariketa bat» izango dena, jaiak ez duelako etenik: «Kuadrillen eguna astelehenera pasatu dugu, eta oilasko biltzaileak 08:00etan aterako dira baserriz baserri». Horrez gain, gauera arte jarduera ugari prestatu dituzte egun horretarako.

Karmen egunarekin itxiko dituzte jaiak, eta ondoren baloratuko dute hurrengo urtean asteburu bakarreko formatua errepikatzea edo bi asteburuetara itzultzea. Motzagoak edo luzeagoak, gauza bat argi dago Añorgako jaietan: ez da aspertzeko astirik egongo! ●

EGITARRAUA

IGANDEA 6

Jubilatuen eguna

11:00

Pilota txapelketako finalak. Meza Nagusia.

11:45

Gure Kabia abesbatza eta Xoxote banda, elizan.

13:00

Artisau erakusketa.

14:00

Jubilatuen Adiskidetasun Bazkaria.

OSTEGUNA 10

17:00

Desafioa (herri kirolak).

18:00

AñorgaARTE erakusketa, museoa.

19:00

Zementonen jaitziera. Ondoren, txaranga.

21:00

AKKE-ren aldeko ogitartekoak.

22:00

Sorpresa jaialdia.

OSTIRALA 11

Orikiz eguna

18:00

Mozorro prestaketa.

18:30

Erraldi eta buruhandiak.

19:00

Erromeria, Gabezin taldearekin.

19:30

Zezensuzkoa.

20:00

Mozorro *photocall*-a. Haurren Mozorro Festa.

21:30

Orikiz Mozorro Festa. Gabezin erromeria.

23:00

Kontzertuak gaztetxean: Aposapo eta Sei Sega.

LARUNBATA 12**Gaupasa eguna****11:30**

Tiroz karabina txapelketa.

12:00

Bakailao lehiaketa eta sagardo dastaketa.

17:30

3x3 saskibalo txapelketa frontoian.

22:30

Ezpalak, Tapia eta Leturia Band eta Zurrumbilo Fest.

IGANDEA 13**AKKE eguna****10:00**

Diana Añorgako erraldoi eta buruhandiekin.

14:30

Elkarteen arteko bazkaria Jolas Etxean.

18:00

Umeen dantza emanaldia.

20:30

Bertso afaria: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

ASTELEHENA 14**Kuadrillen eguna****08:00**

Oilasko biltzaileak (13:30ean, frontoian)

12:00

Paella prestaketa.

14:00

Kuadrillen arteko bazkaria.

16:00

Bingo. Mus txapelketa azkarra.

16:45

Jasotzea eta argazki erraldoia.

17:30

Pilota eta frontenis finalak. Elektrotxaranga.

21:00

Bokadiloak, Jolas Etxean. Gazte afaria gaztetxean.

22:00

Txalainak. Playback Lehiaketa eta DJ-ak.

ASTEARTEA 15**Umeen eguna****10:00**

Ipuin kontalaria. Jarraian, joko eta puzgarriak.

10:30

Haur tailerra, museon.

16:00

Puzgarriak.

16:30

Ginkana.

17:30

Merendola.

18:00*Bualá*

(Txaloka Antzerki Taldea).

19:00

Erraldoi eta buruhandiak.

20:00

Sardina jatea.

ASTEAZKENA 16**Karmen eguna****13:00**

Herri soka dantza.

18:00

Arkaitz Añorgako Dantzarien emanaldia.

19:30

Basurde jolasa.

20:30

Ogitartekoak.

21:00

Bandera jaitziera.

